Soinuzko fitxategia eta krokisa ebaluatzeko errubrika

Ebaluatutako taldea: _____

Errubrika betetzen duenaren izena: _____

MAILA	4 Bikain	3 Oso ongi	2 Nahiko	1 Gutxiegi
Soinumapa.net-eko audio-fitxategia	Audio-fitxategia Soinumapa.net-era igo da eta mapan ongi kokatu da. Audio-fitxategia kalitate onekoa da, azalpeneko testu bat eta argazkia gehitu zaizkio, dagokion kategorian sailkatu da, eta bilaketa errazteko hainbat etiketa gehitu dira.	Audio-fitxategia Soinumapa.net-era igo da eta mapan ongi kokatu da. Audio-fitxategia kalitate onekoa da, azalpeneko testu bat eta argazkia gehitu zaizkio, kategoria baten barruan sailkatu da, eta bilaketa errazteko 1-2 etiketa gehitu dira.	Audio-fitxategia Soinumapa.net-era igo da eta mapan ongi kokatu da. Audio-fitxategia nahiko kalitate onekoa da, azalpeneko testu bat edo argazkia gehitu zaizkio, eta kategoria baten barruan sailkatu da.	Audio-fitxategia Soinumapa.net-era igo da, baina mapan ez da ongi kokatu. Audio-fitxategia kalitate kaskarrekoa da, ez zaio azalpeneko testu edo argazkirik gehitu, eta ez dira finkatu kategoria eta etiketak.
Krokisa	Krokisean nabarmendu nahi izan diren elementuak ezagutzen errazak dira. Lerro oso gutxi erabilita, marrazkiak modu bikainean islatzen ditu paisaiaren oinarrizko ezaugarriak, aldi berean arina eta espontaneoa izanda. Perspektiban marraztuta dago, elementuen eskala islatzen du eta paisaiaren sakontasuna adierazten du.	Krokisean nabarmendu nahi izan diren elementuak ezagutzen errazak dira. Marrazkiak paisaiaren oinarrizko ezaugarriak islatzen ditu, aldi berean arina eta espontaneoa izanda. Elementuen eskala islatzeko eta perspektian marrazteko ahalegina egin da.	Krokisean nabarmendu nahi izan diren elementu gehienak ezagutzeko modukoak dira. Marrazkiak paisaiaren oinarrizko ezaugarriak islatzen ditu, aldi berean arina eta espontaneoa izanda. Elementuen eskala islatzeko ahalegina egin da.	Krokisean nabarmendu nahi izan diren elementu gehienak ez dira ezagutzeko modukoak. Marrazkia ordenarik gabekoa da eta paisaiaren oinarrizko ezaugarriak ez ditu islatzen. Elementuen eskala alde batera utzi da. Ez da erakargarria.
Prozesuaren ezaguera	Taldeko kide bakoitza gai da produktuaren edukiei buruzko nahiz berau osatzeko erabilitako prozesuen inguruko galdera guztiei zehaztasunez erantzuteko.	Taldeko kide bakoitza gai da produktuaren edukiei buruzko nahiz berau osatzeko erabilitako prozesuen inguruko galdera gehienei zehaztasunez erantzuteko.	Taldeko kide bakoitza gai da, bere taldekideen laguntzarekin, produktuaren edukiei buruzko nahiz berau osatzeko erabilitako prozesuen inguruko galdera gehienei zehaztasunez erantzuteko.	Badirudi taldeko kide batek edo gehiagok ez dituela produktuaren edukiak edo berau osatzeko erabilitako prozesuak ezagutzen.